

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4594

AGINDUA, 2023ko irailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2023-2024 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Lanbide Heziketa gizarte modernoan zutabeetako bat da, pertsonen bizi-kalitatea ez ezik, enpresen lehiakortasuna ere areagotzen duen aldetik. Urte hauetako krisi ekonomikoaren testuinguruan, Europar Batasuneko herrialdeak hainbat ekintza gauzatzen ari dira, produkzio-lanarekin lotutako ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketaren bidez langabezia gutxitzeko neurriak sustatzeko, eta pertsonen lanbide-kualifikazioa eta espezializazioa bultzatzeko, ikastetxeko irakatsi eta ikasteko prozesua eta enpresan lan egitea eta ikastea uztartzearen bitartez.

2020-2024 aldirako Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa euskal erakundeen erantzuna da, COVID 19ren osasun-pandemiak sortutako ekonomia- eta enplegu-krisia gainditzeko, galdutako enplegua berreskuratzeko eta langabezia-tasa % 10etik behera kokatzeko, 2024rako ezarritako denbora-epe batean.

Gazteen enplegurako txoke-planaren politikan Enplegua Sortzeari buruzko Programaren II. ardatzean egiaztatzen denez, gazteak dira aurreko krisi ekonomikoen ondorioak gehien pairatu dituzten kolektiboetako bat, eta, era berean, COVID-19 osteko egungo krisiak bereziki eragingo die. Enplegua lortzeko berariazko bultzada ematea funtsezkoa eta beharrezkoa da, zeharkako politika koordinatuaren bidez, beharrezko kualifikazio, gaitasun eta esperientzia pertsonala lortzeko. Horretarako, funtsezkoa da enplegu- eta prestakuntza-aukerak konbinatzen dituzten programa espezifiko eta berritzaileak babesten jarraitzea, kualifikazio txikieneko eta/edo eskola-porrotetik datozen gazteen kolektiboari arreta berezia eskainita.

Programa horiek enplegurako sarbidea erraztuko dute hainbat bideren bidez, hala nola enpresetan kontratatzea, gazteen ekintzailtza, hezkuntza-mundutik trantsizioko lehen esperientzia lan-arlorra, nazioarteko esperientzia praktikoa lortzeko bekak. Bide horiei honako hauek gehitzen zaizkie: enplegarritasuna hobetzea enplegurako prestakuntzaren bidez eta prestakuntza dualaren ereduaren sakontzea.

Ildo horretan, Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua garatu eta lanbide-heziketa dualaren oinarriak ezartzen dituen azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuaren bitartez, kontratu horri atxikitako prestakuntza-jardueraren oinarritzko alderdiak xedatu ziren, baita hezkuntza-sistemaren lanbide-heziketa dualaren oinarritzko alderdiak ere.

Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuaren xedea da hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren ikas-ekinezko erregimeneko heziketa dualaren programak ezartzea, enpresako eta lanbide-heziketako ikastetxeko irakasteko eta ikasteko prozesuak konbinatuta, betiere Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua garatu eta lanbide-heziketa dualaren oinarriak ezartzen dituen azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuan hezkuntza-sistemaren eremuari dagokionez ezartzen diren aurreikuspenak betetzearren.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuen 2012ko urriaren 3ko baterako Aginduak prestakuntza eta lana txandakatzea helburu duen eta gazteei zuzenduta dagoen ikas-ekinezko HEZIBI programaren oinarri arautzaileak ezartzen ditu. Programa horren helburua, besteak beste, honako hauek arautzea da: garatu beharreko prestakuntza-jarduera, jarduera horren egiaztapena, prestakuntza-zentroen eta enpresen rola, programaren finantzaketa eta programa horren babespean eginiko prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuen ziozko dirulaguntzak.

Ildo horretatik, ikas-ekinezko prestakuntza-programen bitartez, ikastetxean nahiz lantokietan lantzen da prestakuntza. Proiektu horien helburua da, hortaz, konpetentzia profesional, pertsonal eta sozialak hobetzea hasierako Lanbide Heziketako titulu bat ikas-ekinezko erregimenean lortze aldera, eta, gainera, enpresan ordaindutako lan-jarduera bat garatzea. Alde horretatik, ikaskuntza-eredu integral bat garatuta, bidea erraztu nahi da heziketa-zikloak ikasten dihardutenei prestakuntza emateko eta ikasle horiek enpresen ekoizpen-sisteman txertatzeko.

Ekainaren 28ko 4/2018 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoak) III. kapituluaren sustatzen du lanbide-heziketa duala, eta hori bultzatzera bideratutako ekintzak ezartzen ditu.

Lanbide-heziketa duala garatzea helburu estrategikoa da, garapen-maila handiagoa duten Europako beste herrialde batzuetan ezarritako lanbide-heziketaren eredia bultzatzeko ezinbestekoa den aldetik. Aipatu legearen bidez, lanbide-heziketa dualaren sistema sendoa eta zabala garatzeko eta ezartzeko elementuak ezarri nahi dira. Sistema horretan sartuko dira bai hasierako lanbide-heziketa eta enplegurako heziketa, bai beharrezkoak diren espezializazioak, oro har, produkzio-sareak, eta, bereziki, ezagutzaren sektore nagusiek eskatutakoak.

Martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak, Prestakuntza Profesionalaren Antolamendu eta Integrazioari buruzkoak, ezartzen du lanbide-heziketa osoa duala izango dela, eta prestakuntza-zentroaren eta enpresaren artean egingo dela.

Gainera, Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana, 2022ko azaroko Gobernu Kontseiluak onartua, Lanbide Heziketako euskal sistemaren hurrengo eraldaketa gidatu behar duen tresna gisa aurkeztu da.

Lanbide Heziketako VI. Euskal Planaren bidez, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren eraldaketa bultzatu nahi da, laugarren industria-iraultzaren erronkei erantzun ahal izateko eredu berri, aurreratu eta disruptibo baten bidez, garapen iraunkorerrantz aurrera eginez, produkzio-ingurune berri baten erronkei, digitalizazioari, konektibitateari, garapen iraunkorari eta ezagutzaren kudeaketari aurre egingo dien giza talentua bultzatuz, gure gizartearen lan-, ekonomia-, zientzia- eta kultura-ereldaketei erantzuteko.

Agindu honek ikastetxe pribatu itunduetako pertsona titularrei zuzendutako dirulaguntzak arautzen ditu. Ikastetxe horiek ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programak izan beharko dituzte 2023-2024 ikasturterako, Lanbide Heziketako sailburuordeak baimenduta.

Deialdi hau Hezkuntza Sailak finantzatuko du eta Europako Gizarte Funtsak kofinantzatuko du, ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza dualera bideratutako jardueren esparruan.

Horrenbestez, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko testu bateginaren VI. tituluan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan dirulaguntzen araubidea arautzeko), Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean (azararen 17ko 38/2003) eta abenduaren 23ko

15/2022 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko Aurrekontu Orokorrak onartzekoa) jasotako xedapenekin bat etorritik, eta Hezkuntza sailburuaren 2023ko urtarrilaren 23ko Agindua, 2023rako sailaren dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen duenarekin,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea eta helburua.

1.– Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakaskuntza-ikastetxe pribatuek Lanbide Heziketako sailburuorde jaunaren ebazpen bidez baimendutako ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programak garatzea 2023-2024 ikasturtean, betiere deialdi honetako dirulaguntza-eskaera aurkeztu baino lehen baimendu badira.

Euskal Autonomia Erkidegoan ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala ezartzen duen ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuko 4. artikuluan ezarritako iraupenak izango dituzte proiektuok.

Edozein kasutan, proiektuak bat etorriko dira azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuak, Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua garatu eta bitariko lanbide-heziketaren oinarriak ezartzen dituenak, ezarritako betekizun eta baldintzekin, eta bereziki, 30. artikuluan ezarritakoarekin.

2.– Dirulaguntza hauen helburua da ikastetxeei berezkoak zaizkien ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak enpresen instalazio, metodologia eta baliabideekin konbinatzea, lanbide-heziketako tituluak eskuratze aldera.

2. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta kostuak.

1.– Diruz lagun daitezkeen jarduera da, ikasleak enpresan dauden bitartean, ikastetxeko irakasleek 1529/2012 Errege Dekretuko 20.3. eta 30.5. artikuluetan eta 83/2015 Dekretuko 2.4. artikuluan ezarritako tutoretza-lanak egitea.

2.– Diruz lagungarriak izan daitezke ikasketa-eskaintza proiektuak garatzen dituzten programak, baldin eta ikastetxeei berezkoak zaizkien ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak enpresen instalazio, metodologia eta baliabideekin konbinatzen badituzte, lanbide heziketako tituluak eskuratze aldera.

3.– Diruz lagun daitezkeen kostu ekonomikoak bitartekaritza-, kudeaketa- eta tutoretza-jardueratik eratorritakoak dira (material suntsikorra, material didaktikoa, ebaluaziorako materia eta tutoreen lekualdatzeetatik eratorritako gastuak).

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke itundutako Oinarrizko Lanbide Heziketako, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloak itunpean ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako pertsona edo erakunde titularrak, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

a) 2023-2024 ikasturtean oinarrizko lanbide heziketako, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren bat itunduta izatea.

b) 2023-2024 ikasturterako onartuta eta baimenduta izatea ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programa, lanbide-heziketako ikastetxearen eta enpresa parte-hartzailearen artean batera egina.

2.– Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan azaldutako egoeren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

4. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Agindu honen xede diren jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa zazpiehun eta berrogieta hamar mila eurokoa izango da. (750.000 euro)

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Eskaerak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen egoitza elektronikoa.

2.– Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoari buruzko ekainaren 20koa 91/2023 Dekretuak, eta Platea E-Administrazio Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen egoitza elektronikoa daude eskuragarri eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako eskabide-ereduak modu elektronikoa izapidetzeko zehaztapenak.

4.– Interesdunek bitarteko elektronikoa erabili beharko dituzte prozedura honetako izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0120512>

5.– Eskaeraren ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»ren bidez egingo dira.

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri,

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7.– Halaber, izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

6. artikulua.– Eskabideak eta agiriak aurkeztea, eta horretarako epea.

1.– Eskaera egiteko, inskripzio-orria erabili beharko da, agindu honen I. eranskinean dagoena; inskripzio-orri hori, berriz, modu telematikoan lortu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen egoitza elektronikoa.

2.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen organoari zuzenean egiaztatzeko laguntzak eskatzen dituzten erakundeek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, hala ezarrita baitago Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren

21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan. Erakunde eskatzaileak berriaz egin diezaioke uko baimen horri, eta, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, dirulaguntzei buruzko erregelamendu orokorraren 22. artikuluan azaltzen den eran.

3.– Eskabideak baliabide elektronikoz aurkeztu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuz, eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, honako betebeharrak hauek egiaztatzeko:

- Laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, edo horretarako legezko debekurik ez izatea, sexu-bereizkeriagatiko debekuak berriaz aipatuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarako Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.

- Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan zehaztutako egoeretako batean ez dagoela.

Ordainduta dauzka dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

- Helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

- Baimendu eta onetsitako proiektuak ikastetxean bertan gordeko dira, eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura egongo dira.

4.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berriaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

5.– Interesdunek egokitzat jotzen dituzten proiektu guztiak aurkeztu ahal izango dituzte, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte; hori bai, aurkeztutako proiektu guztiak jasoko dituen eskabide bakarra egingo dute.

Horrez gain, enprekin izenpetutako hitzarmenak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura jarriko dira programak onartzeko erabilitako aplikazio elektronikoa.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

II. eranskina Lanbide Heziketako sailburuordeak onetsi eta baimendutako programen zerrenda. Bertan adieraziko da zentro bakoitzeko baimendutako proiektu kopurua, eta honako datu hauek jasoko dira proiektu bakoitzari buruz: ikaslearen izena, ikastetxeko tutorea, lanbide-heziketa zikloa eta enpresa.

7. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Aurkeztu den eskabidean akatsen bat edo okerren bat dagoela ikusten bada, 10 eguneko epea emango zaio ikastetxe interesdunari akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak ekar ditzan. Hala egin ezean, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren, bere eskaeran atzera egin duela joko da (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

8. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritza izango da dirulaguntzak emateko prozedura honetako organo kudeatzailea.

9. artikulua.– Esleitzeko prozedura.

1.– Dirulaguntza emango zaie baldintza hauek betetzen dituzten ikastetxeei: ikas-ekinezko erregimeneko heziketa dualaren programak aurkeztea, horretarako baimena izatea eta laguntza hau eskatzea.

2.– 2023-2024 ikasturtean proiektu bakoitzean parte hartzen duen ikasle bakoitzeko emango den dirulaguntza kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: agindu honetako 4.1 artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura zati proiektuetan parte hartzen duen pertsona kopurua. Edonola ere, dirulaguntzek ezingo dute inola ere gainditu 941 euro-ko kopurua ikasle bakoitzeko.

3.– Ikastetxe bereko hainbat ikaslek enpresa berean egiten badituzte antolaketan eta edukietan bat datozen Lanbide Heziketa Dualeko hainbat proiektu (nahiz eta ikasleek enpresan instruktore ezberdinak izan), ikasle bakarra zenbatuko da aurreko ataleko zenbatekoaren ondoretarako. Azterketa hori egiteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: modalitatea, enpresa, tutorea jatorrian (ikastetxean), tutorea destinoan (enpresan) eta heziketa-ziklo bera.

10. artikulua.– Ebazpena.

1.– Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du deialdia, Plangintza eta Antolaketako zuzendariak proposatzen duenari jarraituz, eta bitarteko elektronikoen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen egoitza elektronikoa dagoen «Nire Karpeta» ren bidez, jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunari, ikastetxe onuradunak eta emandako zenbatekoa zehaztuta. Halaber, ebazpenean zehaztuko dira ezetsi eta ukatutako eskabideak eta erabaki hori hartzera eraman duten arrazoiak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

2.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko, gehienez ere sei hilabete izango dira, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

11. artikulua.– Justifikazioa.

Justifikazioa III. eta IV. eranskina –azken txostena– betez egingo da.

Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualaren programak amaitzean, lanbide-heziketako ikastetxeak azken txostena egingo du, eta txosten horretan jasoko dira egin diren jarduerak

eta ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza- eta enplegu-programan parte hartu duen ikastetxe bakoitzeko ikasleei buruzko datu estatistikoak: programa zenbatek amaitu duten; zenbatek utzi duten eta zergatik, eta, laneratzeari dagokionez, nolako emaitza lortu den programaren amaieran. Interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak ere jasoko dira.

Eskabide horiek aurkezteko epea 2024ko uztailaren 15ean amaituko da.

Justifikazio horiek bide elektronikoz aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen egoitza elektronikoa dagoen «Nire Karpeta»ren bidez:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

12. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programa horiei dagozkien dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira, era honetan:

a) Lehenengo zatian, ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 70,698 ordainduko da, betiere 17.1 artikuluko epea igaro bada eta dirulaguntzari uko egin ez bazaio.

b) Bigarren zatian, gainerako zenbatekoa ordainduko da, 2024an, erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak benetan egin izana eta horien kostua ziurtatzen duten egiaztagiriak aurkeztu eta gero, 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Dirulaguntzak ez dira ordainduko onuradunak ez badu egiaztatzen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela; ez da ordainduko, halaber, dirulaguntza edo laguntza- ren bat itzultzeko badu.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko duzu, helbide honetan: <https://euskadi.eus/hirugarrenak>

13 artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Ikastetxe onuradunak EONALTBaren 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikuluan ezarritako egoeraren batean badaude, dagokion itzulketa-prozedura abiaraziko da.

2.– Dirulaguntza itzultzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura beteko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da, eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira. Hori gorabehera, bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratu ahal izango dira. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

Hona prozedura:

a) Prozedura hasi eta ebazteko ardura Lanbide Heziketako sailburuordearena izango da. Prozedura hasiz gero, eten egingo dira oraindik egiteke dauden ordainketak.

b) Ebazpen horretan, prozedurari hasiera emateko arrazoiak jasoko dira, eta 15 eguneko epea emango da egokitze jotako alegazioak egiteko.

c) Alegazioak jaso ondoren, edo horretarako emandako epea alegaziorik aurkeztu gabe igaro ondoren, Lanbide Heziketako sailburuordeak ebazpen bidez burutuko du prozedura.

Hamabi hilabetekoa izango da itzulketa-prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

Ebazpenak ulertzen badu arauak ez direla bete, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortuko du, eta, hala badagokio, adieraziko du kopuruak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola, gehi laguntza ordaindu zenetik dagozkion dirulaguntzen arloko berandutze-interesak; horretarako epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Aldi hori borondatezko alditzat joko da.

d) Borondatezko epean laguntza itzultzen ez bada, horren berri emango zaio Ogasun eta Ekonomia Saileko arduradunari, aplikatu beharreko legezko arauak xedatutakoari jarraikiz jardun dezan.

14. artikulua.– Ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta ezarritako mugak urratuz beste dirulaguntza batzuk lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

2.– Ikasleak baja hartzen badu edo uko egiten badio, kontratuaren iraupenaren proportzioan murriztuko da ordainketa.

3.– Horretarako, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak dagozkion likidazio-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doitzeko.

15. artikulua.– Kontrola, ikuskaritza eta segimendua.

1.– Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzak diruz lagundutako jardueren kontrol-, ikuskaritza- eta segimendu-lanak egingo ditu egoki deritzonean, eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztagiriak aurkezteko eskatuko du, edozein kasutan, emandako dirulaguntzei dagozkien Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Esku-hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolari kalterik egin gabe.

2.– Ikastetxeek erraztu egingo dituzte jarduketa horiek, bereziki kontuen eta eragiketen auditoretzen esparruan egindakoak, baita jarduera fisikoak in situ egiaztatzeko jarduketak eta eskumeneko agintaritzek egindako beste edozein ebaluazio-jarduketa ere.

16. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, behar den gehieneko mugaraino.

17. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen ikastetxe onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Horretarako, dirulaguntzaren esleipena jakinarazi eta hamabost eguneko epean ikastetxe onuradunek berriaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko du.

3.– Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diete haiek beren jardunaren barruan ari direla deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

4.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzari.

5.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri ematea Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzari.

6.– Jasotako dirulaguntzen berri emateko neurriak hartzea. Neurri horiek euskarrietan, informatiko zein bestelakoetan, adierazpen hau jasotzera mugatuko dira: «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak finantzaturako jardura».

7.– Hemen xedatutako betebeharrak guztiak betetzea: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua.

18. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa.

1.– Datu pertsonalak tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Lanbide-heziketarekin lotutako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: itunpeko ikastetxe pribatuei dirulaguntzak ematea ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko.

Legitimazioa:

• Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.

• 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Hartzaileak:

• Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

• Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: onuradunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/047400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

• Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&qid=1695897892220>).

• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-16673>).

2.– Deialdi honetan parte hartzeko eskabidearekin batera, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari baimena ematen zaio beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako agiriak egiazkoak direla.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren eta VII. tituluaren III. kapitulua; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako oinarritzko araudia, eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

Eskabide elektronikoa - Ikas-ekinezko lanbide-heziketa

Nori (organo kudeatzailea): PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak.

Titularra:

Erakundearen izena:

Erakundearen izenak bat etorri beharko du, zehatz-mehatz, IFK txarteleko izenarekin.

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako bidea

Elektronikoa

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoko edo SMS bidezko abisu-sistema erabil dezakezu. Abisu bat jasoko duzu jakinarazpen, komunikazio edo ziurtagiri bat bidaltzen zaizunean.

Abisuetarako bidea Telefono-zenbakia / Helbide elektronikoa

SMSa

Mezu elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

- Euskara
- Gaztelania

Erantzukizunpeko adierazpenak:

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzak jasotzen ari da administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik (dagokion agirian zehaztu behar dira puntu honetako datuak).
- Administrazio publikoren bati edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu dio, eta ebazpena jasotzeko zain dago (dagokion agirian zehaztu behar dira puntu honetako datuak).

2023ko urriaren 6a, ostirala

BESTE ADIERAZPEN BATZUK

- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak. (1)
- Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretako batean ere.
- Ordainduta dauzka dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.
- Baimendu eta onetsitako proiektuak ikastetxean bertan daude gordeta, eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura.
 - (1) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez.

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzeak

Araudi aplikagarriarekin bat etorritz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.

Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

- EZ DUT ONARTZEN prozedura honen instrukzio-organoak ofiziozko egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.).
Onartzen ez baduzu, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.

Zer dokumentu eman diren

Dokumentu mota Izena

Honek elektronikoki sinatua:

II. ERANSKINA

IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEN LANBIDE-HEZIKETA DUALEKO PROGRAMAK

..... ikastetxeko IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEN LH DUALEKO
PROGRAMEN ZERRENDA 2023-2024 ikasturterako

Programen kopurua, guztira: _____

Modalitatea (kontratua/beka)	Tutorea	Ikaslea	NAN	Heziketa-zikloa	Enpresa	IFK

III. ERANSKINA

IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEN LANBIDE-HEZIKETA DUALEKO PROGRAMAK

JUSTIFIKAZIOA

- Justifikazio-epea 2024ko uztailearen 15ean amaituko da.

1.– Ikastetxearen izena:

2.– Onetsitako planak:

Tutorea	Baimendutako proiektu kopurua	Ikaslea	Heziketa-zikloa	Enpresa

3.– Baja hartu edo uko egin diren planak:

Tutorea	Baimendutako proiektu kopurua	Ikaslea	Heziketa-zikloa	Enpresa	Baja hartzearen edo uko egitearen data

2023ko urriaren 6a, ostirala

IV. ERANSKINA
IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEN LANBIDE-HEZIKETA DUALEKO PROGRAMAK
AZKEN TXOSTENA

Ikastetxearen izena: _____

Tutoretzarako eginiko lanak:

Tutorea:	NAN	
Eginiko tutoretza-jardueren azalpen laburra		Dedikazio-orduak
Eginiko lanak		
•		
Tutorea:	NAN	
Eginiko tutoretza-jardueren azalpen laburra		Dedikazio-orduak
Eginiko lanak		
•		
Tutorea:	NAN	
Eginiko tutoretza-jardueren azalpen laburra		Dedikazio-orduak
Eginiko lanak		
•		
Tutorea:	NAN	
Eginiko tutoretza-jardueren azalpen laburra		Dedikazio-orduak
Eginiko lanak		
•		

2023ko urriaren 6a, ostirala

Baimendutako proiektuen azken laburpena

Ikaslearen izena	NAN	Heziketa-zikloa	Gainditua (BAI ALA EZ)	Enpresa	Lan-kontratuarekin jarraitzen du? (BAI ALA EZ)

	Ikasleak (mutilak)	Ikasleak (neskak)
Ikas-ekinezko erregimeneko programa dualean parte hartu duten ikasleen kopurua		
Gainditu duten ikasleen kopurua		
Programa utzi duten ikasleak (%)		
Laneratzea. Aldi baterako kontratuarekin jarraitzen duten ikasleen kopurua (%)		